

MAITASUNAREN ARRASTOA

Ainhoa Aranberri

Zestoa, 13 urte

Ene begiak
argi bi dira
gauean
esekirik

Atzo ikusi zintudan,
eserita zeunden,
beti bezala, irribarrez.
Zure ondora
hurbildu nintzenean,
ez zintudan aurkitu.
Amets soil bat baino ez zinen.

Abenduko hogeita hamaika
eta urtarrileko bata
maitemindu egin dira.

Haizea baino azkarrago dabil,
keak baino arinago egiten du hegan,
zer ote da?
Ni maitasunaren hegoa naiz,
erantzun dit berak,
eta segundu gutxira
lumatxo baten laztana
sentitu dut ene bihotzean.

Nor da zure ametsak marrazten dizkizuna?
Ziur ni ez beste bat dela,
baina zuk ez nauzu ni inoiz ahaztuko,
ezta nik zu ere, zeren zuretzat
beti egongo baita nire bihotzean
gune bat, lipar bat,
elkarrekin bidaiatzeko.